

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 301/2015 Erabakia, ekainaren 9koa, behin betiko onartzen duena "ES2110003-Urkabustaizko Harizti-Irla" BGL kontserbatzeko eta hango habitaten nariadura eta espezien beraien asaldura saihesteko "Kudeaketa jarraibide eta neurriak" agiria

Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 13ko 9/2015 Erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaien "kudeaketa jarraibideei eta neurriei". Horiek, ondokoak jasotzen dituzte, Eusko Jaurlaritzak lehendik onartutako kontserbazio helburuen ildotik: eremuak kontserbazio egoera egokian izateko neurri egokiak, habitat naturalen eta espezieen habitaten hondatzea ekiditeko neurri egokiak, hala nola aurretik Kontserbazio Bereziko Eremua -KBE- modura onartuz "ES2110003 – Urkabustaizko harizti irlak" Europar Batasunaren Intereseko Lekuaren (EBIL) izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak.

9/2015 Erabakiko bigarren puntuan, onartu egin zen Batasunaren garrantziko leku hori (BGL) "Kudeaketa jarraibide eta neurriak" agiriri entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapidea igaroaraztea, bi hilabeteko aldiak.

Entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko aldiak, agiriari buruzko oharrak eta alegazioak aurkeztu dituzte honako administrazio, erakunde eta interesdun edo eragindako hauek:

- Natura Inguruneke eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Abornikano, Beluntza, Larrazketa eta Oiardoko administrazio batzarren baterako alegazioa.
- Baskegur Elkarteak.

Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak eta Mendi Zerbitzuak elkarlanean egindako 2015eko ekainaren 1eko txostenaren bidez, ohar eta alegazioen edukia aztertu eta horiei erantzuna ematea erabaki zen, ondoren adierazten den bezala:

Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza honek 2015eko otsailaren 10ean igorritako txostenaren bitartez, dagokion alegazioaren inguruan adierazten da guztira 4 kudeaketa jarraibide bat datozela arau eta erregulazioekin eta beraz, horiek Aldundiak onetsi beharreko "Kudeaketa jarraibide eta neurriak" agirian sartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumenetan esku sartzea dela, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategineko lehenengo paragrafoan ageri diren 22.4 eta 22.5 artikuluen arabera. Horiek horrela, eskatzen da ezaba daitezela behin betiko onartu nahi den agiritik kudeaketa jarraibide horiek.

Alegazio horri erantzunez, Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 13ko 9/2015 Erabakiak, Urkabustaizko harizti irlaren BGLko "Kudeaketa jarraibide eta neurriak" izeneko agiriri hasierako onarpena ematen dionak, adierazi eta arrazoitzen du "Urkabustaizko harizti irlak (ES2110003) Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) helburuak eta arauak" agiriak, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko sailburuaren 2014ko uztailaren 31ko agindu bidez alde aurretik onartutakoak, erregelamendu gehiegikeria daukala, kontserbazio neurriez gain, zenbait kudeaketa jarraibide sartzen baititu, horiek definitzeko eta horiei onarpena emateko eskumena Arabako Foru Aldundiarena izanik, 16/1994 Legearen, Euskal Herriko natura babestekoarenaren, testu bateratuaren 22.5 artikuluen arabera. Horretan oinarrituta, erabaki horri "1. eranskina" gehitzen zaio. Eranskin horretan Arabako Foru Aldundiak, eta ez Eusko Jaurlaritzak, onartu behar dituen kudeaketa neurrien eta jardueren zerrenda jasotzen da.

632/2014 erabakiaren 1. eranskinean bildutako kudeaketa jarraibide horiek aldaketekin sartu ziren Foru Aldundian behin-behinean onetsitako agirian, tartean Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak aurkeztutako alegazioan hasiera batean Aldundiak onetsitako agiririk kentzeko eskatutako lau jarraibideak.

Era berean, Arabako Foru Aldundiaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak, 2015eko martxoaren 6an, Hirigintza eta Ingurumen Zuzendaritzari bidali zion ES2110003 "Urkabustaiz" eremua kontserbazio bereziko eremu izendatzen duen eta haren kontserbazio arau eta helburuak onartzen dituen dekretu proiektua onartu ondoren jasotako alegazio eta iradokizunei erantzuna.

Hasteko, esan beharra dago Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak otsailaren 10ean igorri zuen txostenean Kudeaketa Jarraibide eta Neurrien Agiritik kentzeko alegatzen duen jarraibideetako bi ez datozela bat Eusko Jaurlaritzak aurretik onetsitako "araubideekin". Dena den, alegatutako lau jarraibide horien testua zorrotz aztertuta, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren alegazioa onartze aldera, alegatutako jarraibideetako bat ezabatu da eta beste hiruren testua egokitu da, argi gera dadin "jarraibide" direla eta ez "erregulazio" Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza horrek alegatzen duen moduan:

1. Helburua / 1.1 emaitza:

– 5. jarraibidea, testu berriaren proposamena: "KBEren basoak kudeatzerakoan, jarduketak egitea ekidingo da KBEko basoetan, nahasmenduak ekar baditza... ("Ekidin beharko da..." idatzi ordez).

2. Helburua / 2.1 emaitza:

– 3. jarraibidea, testu berriaren proposamena: "Harizti irlen kudeaketan basoak zeharkatzen dituzten ur bideak zainduko dira, uberketan zeharkatzen enbor eta adarrak egon daitezkeen txikiak izan arren, eta putzu eta urmael naturalak egotea ahalbidetu eta bermatzeko. Uraren presentzia zainduko da, bereziki udan" ("...zeharkatzen dituzten ur bideak zaindu beharko dira" idatzi ordez).

– 4. jarraibidea, testu berriaren proposamena: "KBEtik hurbil dauden putzuak zainduko dira eta aldaketa mota oro ekidingo da. Haien aldatuz gero, ugaltzarairako ura egotea bermatzeko putzu edo urmael txikiak sortzeko aukera aztertuko da" ("... putzuak zaindu beharko dira" idatzi ordez).

3. Helburua / 3.1 emaitza (kiropteroak):

– 6. jarraibidea, ezabatzeko proposamena: Behin-behinean onetsitako "Kudeaketa jarraibide eta neurrien" agirian bilduta dagoen bezala, erregulazioa dela onartu da (kasu honetan debekua da) eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako Helburu eta Erregulazioen Agirian antzeko testuarekin bildu ostean, ez dela Aldundiak onetsi behar duen agirian sartu behar. Horrenbestez, alegazioa onartu da jarraibide horri dagokionez.

Abornikano, Beluntza, Larraketa eta Oiardoko administrazio batzarren baterako alegazioa

Administrazio batzarrek ordezkatutako Abornikano, Beluntza, Larraketa eta Oiardo kontzejuek zalantzan jartzen dute Urkabustaizko harizti irla KBE izendatzeko prozesua eta bereziki parte hartze prozesua. Kontzejuek KBE osatzen duten lur gehien jabe diren administrazio publiko modura aitortu behar direla adierazten dute alegazioan, eta kontzeju horiek aitortu behar direla, mendi hauetan gauzatutako jarduera tradizionalen (abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak gehienbat) garapen historiko iraunkorretik abiatuz egindako zaintzagarriak.

Aipatutako batzarren ustez, kudeaketa jarraibide eta neurriak positiboak izan daitezke oraingo egoera nabarmentzen badute eta naturgune honen aprobetxamenduetan esku hartzen duten eragile guztiak inplikatzeko baditu. Kontzejuek eta gainerako tokiko eragileek (abeltzainak, ekologisten elkarteak, beste sektore ekonomiko batzuk, etab.) kudeaketan parte hartzeko

eskatzen da eta jarduketa batzuk kontzejuek beraiek espresuki kudeatzeko ere bai. Azaldu-takoaren inguruan, jarraian ageri diren bi alegazio zehatzak planteatu dituzte kontzejuek:

1. alegazioa: Eragindako kontzejuek "Kudeaketa jarraibide eta neurrien" agirian aipatzen diren jarduketan kudeaketan parte hartzeko eta horien buruan egoteko interesa dutela adierazi dute.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago Urkabustaizko harizti irlaren KBEko basoen kudeaketa Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauan ezarritako oinarrizko baldintza berberak jarraituz egin beharko dela, erabilera eta jarduera tradizionalei dagokienez (bereziki basogintzakoei eta abeltzaintzakoei dagokienez). Zentzu horretan, Arau horren II. Tituluaren mendien tituludunek eskubide eta betebeharrak mugatzen dira eta eskubide eta betebeharrak ez dira aldatuko eremua KBE izendatzearen ondorioz. Aldi berean, V. tituluak, espresuki sarreran adierazten den bezala, mendien kudeaketa eta horien baliabideen aprobetxamendua arautzen ditu, mendi mota eta basoko lurzoru ororen antolamendu iraunkorraren irizpide nagusitik abiatuz, eta aprobetxamendu desberdinei buruzko arauak ezartzen dira bertan, baliabide horien iraunkortasunaren irizpide nagusi horren arabera. Horrenbestez, Mendiei buruzko Foru Arauan ezarritako esparruan, kontzejuek Onura Publikoko Mendien Kudeaketan parte hartzen jarraituko dute.

92/43/EEE zuzentarautik sortua da Natura 2000 Sarea eta horrek ezartzen du KBE aitortzeko obligazioa. Zuzentzarauan bertan "Batasunaren eta/edo lehentasunezko intereseko" modura katalogatutako habitatak babesteko eskatzen da. Horri dagokionez, esan beharra dago obligazio hori guztiz bateragarria dela Mendiei buruzko Foru Araua betetzearekin, orain arte egin den moduan. Hala ere, Europako Zuzentzarauak eskatzen duen modura eta Euskal Herriko natura babesteko Legearen Testu Bateginak ezarritako eskumen banaketa errespetatuz, habitat horiek eta Natura 2000 Sareko KBE zaintzeko azken erantzukizuna Eusko Jaurlaritzarena da antolamenduaren alorrean eta Foru Aldundiena kudeaketaren alorrean.

2. alegazioa: Sinatzen duten kontzejuen ustez, "Kudeaketa jarraibide eta neurrien" agiriko "41. jarduketak" planteatzen duen "lantalde egonkorraren" parte izan behar dute. Eusko Jaurlaritzan eta Aldundian eskumena duten ingurumen erakundeek osatzea planteatu du organo honek.

Alegazio horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago jarduketa hori bat datorrela Eusko Jaurlaritzak Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko sailburuaren 2014ko uztailaren 31ko agindu bidez onetsitako "Helburu eta Erregulazioen" agirian bildutako helburu zehatzarekin (7.1 zenbakidunarekin).

7.1 helburu zehatza: "Eusko Jaurlaritzan eta Arabako Foru Aldundian Urkabustaizko harizti irla KBEen biodibertsitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzaren jarduketan koordinatzeko batzorde tekniko iraunkorra sortuko da".

Horren harira, kontuan izanik helburuak zehaztea Eusko Jaurlaritzaren eskumen dela, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzara bidaltzen da alegazioa.

Baskegur Elkarte

Euskal Herriko zur ekoizleak eta basoginak ordezkatzeko dituen elkarte horrek alegatzen du kontuan hartu behar dela KBE izendatzeak eta Urkabustaizko harizti irlan KBEren eragin eremuko jarduera ekonomikoetan "Kudeaketa jarraibide eta neurriak" izeneko agiriak duten eragina; batez ere, zura ekoiztea helburua duen basogintza jardueran. Horren harira adierazten du Europako 92/43/EEE zuzentzarauak, habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoak, bere 2. artikuluan 3. paragrafoan xedatzen duela "zuzentzarau honen arabera hartzen diren neurriek kontuan hartuko dituzte ekonomia, gizarte eta kultura beharrak, bai eta eskualdeko eta tokian tokiko berezitasunak ere".

Argudioen ildo horretan, "1.1." alegazioan, elkarteak 5.3 emaitza emaitza hori lortzeko proposatzen den jarduketara (32 zenbakidun jarduketa) egokitzeko planteatzen du elkarteak. 5.3 emaitza eta 32 zenbakidun jarduketa bat ez datozela uste da; izan ere, honakoa dio emaitzak: "Bada kalkulu bat Urkabustaizko harizti irlen biologia aniztasunak duen balio ekonomikoarena, bai eta bertako ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen ere"; 32. jarduerak, aldiz, hau dio: "ikerlan bat egin tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori berdintzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa".

5.3 emaitzari edukia emateko, ondorengo jarduketa berria sartu da "Kudeaketa jarraibide eta neurrien" agirian:

Jarduketa: "Urkabustaizko harizti irlen KBeko biologia aniztasunaren eta haren ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa aztertzea".

Bestalde, esan beharra dago "emaitzen" definizioa Eusko Jaurlaritzak bere "Helburuak eta Erregulazioak" agirian onetsitako helburuen parekoa dela eta beraz, "emaitza" horien testua aipatutako agirian bildutako "helburu eraginkorrenen" berdina edo antzekoa izan behar dela. Eusko Jaurlaritzaren eskumen da helburuak zehaztea eta onartzea, 1/2014 Legegintzako Dekretuan, Euskal Herriko natura babesteko Legearen testu bateratua onartzen duenean, jasotako eskumeneren arabera. Beraz, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari bidaltzen zaio Baskegurren alegazio testua.

1.2, 1.3 eta 1.4 alegazioen bidez, Baskegurrek proposatzen du "Kudeaketa jarraibide eta neurriak" izeneko agirian beste emaitza batzuk sartzea edo dagoeneko jasota daudenak aldatzea. Aurrerago esan bezala, alegazio horien berri eman zaio Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneren eremukoak baitira.

Baskegurren 1.5 alegazioan planteatzen da kudeaketa jarraibide bat aldatzea; hain zuzen ere, basogintza lanak kiropteroen eta beste espezie kaltebera batzuen behar eta ezaugarri biologikoei egokitzeko: "Kiropteroen edo beste basoko animalia espezierik hautematen bada, basogintza lanak espezie horren biologia behar eta berezitasunei egokituko zaizkie." Hona hemen aurrekoa aldatuz Baskegurrek proposatzen duen testua: "Aztertu kiropteroen edo beste zeinahi animalia kalteberaren eta Urkabustaizko harizti irlen KBEn aplikazio edo eragin zona edo eremuko ohiko jarduera ekonomikoen, hala nola, basogintzaren (basoak onik zaintzeko eta bertakoak aprobetxatzeko lanak), arteko elkarreragina, bai eta zona horietan basogintza lanak beste sasoi batean edo beste era batean egiteko aukera ere".

Baskegurren alegazioaren zati bati erantzuteko, ondorengo testua sartu da: "Arriskuan dauden kiropteroen presentzia hautematen denean, dagokion espeziearen errekerimendu eta berezitasun biologikoetara egokituko dira KBEn egin beharreko basolanak eta jarduketak".

Azkenik, onetsi egiten da Baskegurrek planteatzen duen "2.1 alegazioa" eta "Komunikazioa, hezkuntza, parte hartzea eta gizalegea" paragrafoa sartzeko, jendeak ikus dezan basogintza era jasangarrian egiten denean ingurumen onurak dakartzan jarduera dela. Hona hemen horren harira sartzeko den jarduera berria: "Jendeari jakinarazi basogintza kudeaketa giltza izan daitekeela baso habitaten zaintza helburuak lortzeko".

Horregatik guztiagatik, entzunaldiko izapideak iraun duen bitartean egindako ohar eta ekarpen guztiak kontuan hartuta, Diputatuen Kontseiluari proposatzen zaio behin betiko onar dezala "ES2110003-Urkabustaizko harizti irlak" KBE kontserbatzeko eta hango espezieen habitaten narriadura eta espezieen beraien asaldura saihesteko "Kudeaketa jarraibide eta neurriak" agiria.

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea "ES2110003-Urkabustaizko harizti irlak" KBE kontserbatzeko eta hango espezieen habitaten narriadura eta espezieen beraien asaldura saihesteko "Kudeaketa jarraibide eta neurriak" agiria.

Bigarrena. “Kudeaketa jarraibideak eta neurriak” agirian jasotako kudeaketa neurriak gauzatzeko zuzkidura ekonomikoak kasuan kasuko aurrekontuekin onartuko den aurrekontu erabilgarria egotearen baldintzapean daude, eta, edozein kasutan ere, agiri horretako kalkulu ekonomikoa 92/43/CE Zuzentarauaren 8. artikuluan aipatutako kofinantzaketa komunitarioari dagokionez beharrezko irizitakorako egiten da.

Hirugarrena. Erabaki hau jakinaraztea alegazioak aurkeztu dituzten administrazio, erakunde eta interesdun eta/edo eragindako bakoitzari.

Laugarrena. Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 9a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

MARTA RUIZ CERRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA